

BESTELAKO XEDAPENAK

ENPLEGUKO ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

1234

EBAZPENA, 2018ko otsailaren 27koa, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiarena, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Administrazio Kontseiluak hartutako erabaki bat argitara emateko dena. Erabaki horren bitartez, diru-baliabideak esleitzen dira Lan eta Gizarte Gaietarako Ministerioaren 1998ko urriaren 16ko Aginduan aurreikusitako laguntzak 2018ko ekitaldian finantzatzeko. Agindu horren bidez, hain zuzen ere, desgaitasuna duten pertsonak enplegu-zentro berezietan laneratzeko laguntza eta diru-laguntza publikoak emateko oinarri arautzaileak ezartzen dira.

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Administrazio Kontseiluak, 2018ko otsailaren 27ko bilkuran hartutako Erabakiaren bidez, zenbait diru-baliabide esleitu ditu, zehazki Lan eta Gizarte Gaietarako Ministerioaren 1998ko urriaren 16ko Aginduan ezarritako laguntzak 2018an finantzatzera bideratuko direnak (agindu horren bidez, desgaitasuna duten pertsonak enplegu-zentro berezietan laneratzeko laguntza eta diru-laguntza publikoak emateko oinarri arautzaileak ezartzen dira). Gauzak horrela, Lanbideren Estatutuetako 10.2 artikulua (p) letran xedatutakoarekin bat etorritik (estatutu horiek maiatzaren 22ko 82/2012 Dekretuaren bidez onetsi ziren), Lanbideko zuzendari nagusiak eman behar du argitara erabaki hori.

Azaldutako guztiagatik, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Argitara ematea Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Administrazio Kontseiluak 2018ko otsailaren 27ko bilkuran hartutako erabakia, zeinaren bidez esleitzen baitira zenbait diru-baliabide Lan eta Gizarte Gaietarako Ministerioaren 1998ko urriaren 16ko Aginduan ezarritako laguntzak 2018an finantzatzeko (agindu horren bidez, desgaitasuna duten pertsonak enplegu-zentro berezietan laneratzeko laguntza eta diru-laguntza publikoak emateko oinarri arautzaileak ezartzen dira). Erabakia ebazpen honen eranskinean dago jasota.

Bigarrena.– Jakinaraztea argitara ematen den Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren Erabakiak ondorioak izango dituela ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Hirugarrena.– Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Administrazio Kontseiluaren erabakiaren aurka, zeinaren bidez deialdia onartzen baita, berraztertze-errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio organo horri berari, hilabeteko epean, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera; edo administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da zuzenean Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, bi hilabeteko epean, ebazpena aldizkari horretan argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2018ko otsailaren 27a.

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusia,
JUAN JOSE BORJA BELANDIA FRADEJAS.

ERANSKINA

LANBIDE-EUSKAL ENPLEGU ZERBITZUKO ADMINISTRAZIO KONTSEILUAREN ERABAKIA, ZEINAREN BIDEZ ZENBAIT DIRU-BALIABIDE ESLEITZEN BAITIRA LAN ETA GIZARTE GAIETARAKO MINISTERIOAREN 1998KO URRIAREN 16KO AGINDUAN EZARRITAKO LAGUNTZAK 2018AN FINANTZATZEKO. AGINDU HORREN BIDEZ, DESGAITASUNA DUTEN PERTSONAK ENPLEGU-ZENTRO BEREZIAN LANERATZEKO LAGUNTZA ETA DIRU-LAGUNTZA PUBLIKOAK EMATEKO OINARRI ARAUTZAILEAK EZARTZEN DIRA

Desgaitasuna duten pertsonen eskubideei eta gizarteratzeari buruzko Lege Orokorra azaroaren 29ko 1/2013 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartu zen. Bada, lege horren Testu Bateginaren 43. artikulua zehazten duenez, enplegu-zentro berezien xede nagusia da ondasunen edo zerbitzuen jarduera produktibo bat egitea, merkatuko operazioetan aldizka parte hartuz, desgaitasuna duten pertsonen ordaindutako lanpostu bat ziurtatzeko; era berean, pertsona horien ahalik eta kopuru handiena ohiko enplegu-erregimenean sartzeko bide bat osatzen dute zentro horiek.

Lan eta Gizarte Gaietarako Ministerioaren 1998ko urriaren 16ko Aginduak arautzen ditu desgaitasuna duten pertsonak laneratzeko laguntzak, lan babestuaren formula bereziaren bidez, hau da, halako pertsonen enplegu-zentro berezian sartzeari buruzko bide bat osatzen dute zentro horiek.

Enplegu-zentro bereziak finantzatzeko, laguntza publikoen premia dago, eta arau horrek erantzun egiten dio premia horri, hala jasotzen baita berriaz Desgaitasuna duten pertsonen eskubideei eta gizarteratzeari buruzko Lege Orokorraren egungo Testu Bateginean, enplegu-zentro berezien Erregelamenduan –abenduaren 4ko 2273/1985 Dekretuaren bidez onartu zen– eta Enpleguari buruzko Legearen testu bategina onartzen duen urriaren 23ko 3/2015 Legegintzako Errege Dekretuan.

Euskal Autonomia Erkidegoari eskualdatu egin zitzaizkion Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoak lanaren, enpleguaren eta enplegurako lanbide-heziketaren esparruan egiten zituen lan-arloko legeria betearazteko eginkizunak. Geroztik, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren eskumena da enplegu-programa orokorrak eta laneratzeko zailtasun bereziak dituzten gizataldeei zuzendutako programa espezifikoak kudeatzea.

Xede hori duten laguntzak arautzeko arau autonomiko bat prestatu eta indarrean jarri bitartean, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak jarraituko dute Lan eta Gizarte Gaietarako Ministerioaren 1998ko urriaren 16ko Aginduan araututako laguntza-programa gauzatzen, eta, horrela, beteko dute desgaitasuna duten pertsonak enplegu-zentro berezian laneratzeko premiari buruzko xedapenetan, lehenago aipatutakoetan, ezarritakoa.

Lan eta Gizarte Gaietarako Ministerioaren 1998ko urriaren 16ko Aginduan, bi laguntza-lerro biltzen dira: bata, inbertsioak diruz laguntzeko, eta, bestea, aipatutako gizataldeak enplegu-zentro berezian dituen lanpostuei eusteko. Aurten emango diren laguntzen bidez, ziurtatuta dago egun dauden lanpostuei eusteko finantzazioa, eta, horrela, saihestu egingo da enplegua suntsitzea, krisi-garaian gehienbat talde eta sektore ahulenei eragiten baitie.

Lan eta Gizarte Gaietarako Ministerioaren 1998ko urriaren 16ko Aginduak indarraldi mugagabea dauka. Bestalde, laguntza hauek emateko prozeduran, ez da lehiaketaren teknika erabiltzen. Esleitutako aurrekontu-kreditua edo haren eguneratsetik sortzen dena izango da laguntzak emateko muga, berriaz hala ezarrita baitago aginduaren laugarren xedapen gehigarrian.

Hori dela-eta, diru-laguntzak emateko prozeduran errespetatu behar den publikotasun-prinzipioa betez, eta Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategina

2018ko martxoaren 7a, asteazkena

onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren 49. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, jakinarazi behar da zein den aipatutako aginduan aurreikusitako laguntzak finantzatzeko esleitutako kredituen zenbateko osoa, bai eta zenbateko hori eguneratzen sor litekeen zenbatekoa ere.

Bestalde, publikotasunaren eta segurtasun juridikoaren printzipioak betetze aldera, komeni da laguntzen onuradun posibleei jakinaraztea badirela diru-laguntzak emateko prozedurarekin eta araubide juridikoarekin lotutako zenbait alderdi, laguntza horiek arautzen dituen aginduan ezarritakoarekin bat ez datozenak, zuzenean aplikatzen baita Euskal Autonomia Erkidegoaren berezko antolamendu- eta laguntza-araudia.

Horregatik guztiagatik, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Administrazio Kontseiluak, 2018ko otsailaren 27ko bilkuran eztabaidatu ondoren, honako erabaki hau hartu du:

ERABAKIA

Lehenengoa.– Zenbait diru-baliabide esleitzea Lan eta Gizarte Gaietarako Ministerioaren 1998ko urriaren 16ko Aginduan araututako laguntzak 2018ko ekitaldian finantzatzeko. Agindu horren bidez, desgaitasuna duten pertsonak enplegu-zentro berezietan laneratzeko laguntza eta diru-laguntza publikoak emateko oinarri arautzaileak ezartzen dira. Baliabide ekonomiko horiek, guztira, 33.700.000 eurokoak izango dira, eta 32110-Enplegua Programaren kargura finantzatu dira.

Diru-baliabide horiek agindu arautzailearen 4.B) artikuluen 2. zenbakian aurreikusitako diru-laguntzak finantzatzeko erabiliko dira, osorik, hau da, desgaitasuna duten pertsonak betetako lanpostuen soldata-kostuak estaltzeko, betiere lanposturik ez suntsitzea helburu duen laguntza-lerroaren barruan.

Laguntzen bolumen osoak ez du gaindituko aipatutako zenbateko hori edo zenbateko hori eguneratzen ateratzen dena, aurrekontu-aldaketarik onartzen bada indarreko legeekin bat. Eguneratzerik izanez gero, argitara eman behar da, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiaren ebazpen baten bidez eman ere.

Bigarrena.– Laguntzen kudeaketari buruzko zenbait alderdi zuzenean aplikatzen zaizkie bai Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko laguntzen erakunde kudeatzaile autonomoa den aldetik ezartzen dituen antolamendu- eta funtzionamendu-arauek, bai Euskal Autonomia Erkidegoak diru-laguntzak emateko duen berezko araubide juridikoa. Hortaz, alderdi horien berri eman beharra dago. Hona hemen:

– Ebazpen honetan aipatzen diren diru-laguntzak jasotzeko eskabideak eredu ofizialean aurkeztu beharko dira (I. eranskina), eta honako toki hauetan izango dira eskuragarri: www.lanbide.euskadi.eus web-orrian; Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuen zerbitzu zentraletan (Jose Atxotegi kalea 1, Vitoria-Gasteiz 01009), eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuen bulegoetan, enpleguko lurralde-bulegoetan eta Zuzenean zerbitzuko bulegoetan.

Horretaz gain, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan xedatutako moduetako edozeinetan aurkeztu ahal izango dira eskaerak.

– Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuen Laneratzeko zuzendariak hartuko du bere gain eskabideak kudeatzeko eta izapidetzeko ardura, eta erakunde autonomo horren zuzendari nagusiak ebatziko ditu.

– Ebazteko, gehienez sei hileko epea izango da diru-laguntza eskaera aurkezten den egunaz geroztik, eta, epe hori igarotakoan, ebazpenik eman ez bada, eskaera administrazio-isiltasunaren bidez baietsi dela ulertuko da.

– Zuzendari nagusiaren ebazpenak amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, haren aurka, berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio organo horri, hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, edo bestela, zuzenean, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa ere aurkez daiteke Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, bi hileko epean, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera.

– Diru-laguntzen programa honetan aplikagarria izango den diru-laguntzen erregimen juridiko autonomikoa honako xedapen hauetan dago jasota: azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuak onartutako Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategineko VI. tituluan eta VII. tituluko III. kapituluan eta abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuan, azken horrek arautu baitzuen Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorren kargurako diru-laguntzen bermeen eta itzulketen araubide orokorra eta bertan ezarri baitziren horien kudeaketan parte hartzen duten erakunde laguntzaileen eskakizunak, araubidea eta betebeharrak. Halaber, beste hauek ere aplikagarriak izango zaizkio: diru-laguntzei buruzko estatuko oinarrizko araudia, Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean arautua, eta hori aplikatzeko erregelamendua, uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartua.

Hirugarrena.– Zuzendari nagusiak emango du argitara erabaki hau, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian.



ESKABIDEAK NON AURKEZTU

- **LANBIDE EUSKAL ENPLEGU ZERBITZUAREN ZERBITZU ZENTRALA** (Jose Atxotegi 1, 01009 Vitoria-Gasteiz) edo ondorengo leku hauetan:

- **ARABAKO LURRALDE BULEGOA**

Antillak pasabidea 14, behea
VITORIA-GASTEIZ

- **BIZKAIKO LURRALDE BULEGOA**

Ertzilla kalea 4
BILBAO

- **GIPUZKOAKO LURRALDE BULEGOA**

San Martzial 12
DONOSTIA

- **TOKIKO ENPLEGU BULEGOAK**

- **ZUZENEAN - HERRITARRENTZAKO ZERBITZU BULEGOAK**

Horretaz gain, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan aurreikusitako moduetako edozeinetan aurkeztu ahal izango dira eskaerak.

DATUEN BABESA

Datu Pertsonalak Babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren 5. artikuluan xedatutakoa betez, jakinarazten zaizu formulario honetan ematen dituzun datu pertsonalak erregistratuta geratuko direla Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzua erakunde autonomoaren «ENPLEGURAKO ETA PRESTAKUNTZARAKO DIRU-LAGUNTZAK» izeneko fitxategian. Fitxategi horren helburuak hauek dira: Lanbideren eskumenekoak diren enplegu- eta prestakuntza-politika aktiboekin lotutako diru-laguntzak kudeatu eta kontrolatzea; beste administrazio eskudun batzuekin lankidetzan aritzea eta koordinatzea Lanbideren zerbitzuak eskatzen dituzten pertsonak gizarteratzeko eta laneratzeko; iruzurraren jazarpena eta estatistika-helburuak; Datuak Babesteko Euskal Agentziaren erregistroan behar bezala inskribatuta egotea, eta datuen segurtasun-neurri egokiak izatea.

Administrazio publikoak erkatu egin ahal izango ditu aurkeztutako datuak, bai eta egoki irizitako egiaztapenak egin ere, laguntza behar bezala esleitzeko.

Halaber, jakinarazten dizugu datuok legezko kasuetan bakarrik jakinaraziko direla, eta fitxategi honi dagokionez, Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoari, foru- aldundiei eta Gizarte Segurantzako Diruzaintza Orokorrari jakinaraziko zaizkio.

Entitate eskatzaileak honako hau bermatzen du dokumentu hau sinatzean: dokumentuko datu pertsonalen titularrak baduela Datuak Babesteko Lege Organikoaren 5. artikulua edukien berri, eta berariazko baimena eman duela datuok – erakunde eskatzailearen titulartasuneko fitxategietan jasotakoak– orain tratatu ahal izateko.

Datu pertsonalak babesteari buruzko araudiaren arabera, datuetara iristeko eskubidea balia dezakete interesdunek, baita haiek ezeztatzeko, zuzentzeko eta tratatzearen kontra egiteko ere. DBLOK berariaz onartzen ditu eskubide horiek, eta, horretarako, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuarekin jarri behar duzu harremanetan (Zerbitzu Zentralak, Jose Atxotegi 1, 01009 Vitoria-Gasteiz, Araba).



1. ORDEZKARIAREN DATUAK

ABIZENAK ETA IZENA	NAN	ORDEZKATZE MOTA

2. ENTITATEAREN DATUAK

TITULARRA	IZAERA JURIDIKOA	
EZBaren IZENA	INSKRIPZIO ZENBAKIA	IFK
HELBIDEA	KP	LURRALDE HISTORIKOA

3. LANGILE KOPURUA

DESGAITASUNA DUTEN PERTSONAK

GUZTIRA

DESGAITASUNIK EZ DUTEN PERTSONAK

4. ESKATZEN DEN DIRU-LAGUNTZA

DIRU-LAGUNTZA ESKATZEN DA ONDOKO DESGAITU KOPURU HONETARAKO	DIRU-LAGUNTZA ESKATZEN DA ONDOKO URTE ETA HILABETERAKO	ESKATUTAKO DIRU KOPURUA



5. ZINPEKO AITORPENA

Nik, jaunak/andreak,
 Enplegu Zentro Berezia eskatzailea ordezkatzu eta haren izenean

ZIN EGITEN DUT:

(dagokiona X batez seinatatu)

Lehenengoa:

Ez dagoela Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra eta bere organismo autonomiadunek emandako izaera bereko laguntzak direla-eta hasitako inolako dirua itzularazteko prozeduraren edo zigorrak ezartzeko prozeduraren baitan.

Bigarrena:

Eskatzaileak ez duela diru-laguntza edo laguntza publikoak jasotzeko aukera galtzea dakarten zigor zein administrazio arloko zehapenik jaso, ezta horretarako desgaitzen duen legezko debekurik ere.

Hirugarrena:

Ez duela sexu-bereizkeria egiteagatik zigor administratibo edo penalik jaso, ezta euskal herri-administrazioen laguntza eskuratzeko debekurik ere, otsailaren 18ko Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako Legea (4/2005) dela bide.

Laugarrena:

Eskabide honetan ezarritako datu guztiak egiazkoak direla.

Bosgarrena:

Ez dagoela Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 13.2 artikuluan aurrez ikusitako egoeren eraginpean, diru-laguntzen onuradun izateko baldintzei dagokienez.

(Dagokiona X batez seinatatu)

BAI

EZ

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari **baimena ematen diot** nire nortasun datuak eta Gizarte Segurantzaren eta Foru Ogasunaren zerga- betebeharren egoera, elektronikoki egiazta ditzan.

(Oharra: baimenik ematen ez bada NANA eta ziurtagiriak aurkeztu behar dira)

201...(e)ko..... -ren (e)an

Sinatuta:


A – ERANSKINA: LANGILE DESGAITUEN PLANTILAN GERTATUTAKO ALDAKETEN JAKINARAZPENA

20.....ko (e)an, Enplegu Zetro Berezi honetan (..... inskripzio zenbakiduna, etahelbidea duena), ondorengo aldaketak suertatu dira bere langile desgaituen plantilan:

ALTAK

ABIZENAK ETA IZENA	NAN	GIZ. SEG. AFILIAZIO ZKIA.	ALTAREN DATA

BAJAK

ABIZENAK ETA IZENA	NAN	GIZ. SEG. AFILIAZIO ZKIA.	ALTAREN DATA

Honekin batera, langile berrien Gizarte Segurantzaren alta-partreak, lan-kontratuak eta desgaitasun-egiaztagiriak egiaztagiriak aurkezten dira, edo/eta baja-partreak ere, kasuen arabera.

..... an, ko ren (e)an.

Sinatuta:

Zerrenda osatzeko toki nahikoa ez balego, orrialde gehigarriak erabili

